

PROPOSAMENAK LEHENESTEA – PRIORIZACIÓN DE PROPUESTAS
Saio irekia – Sesión abierta
2018/11/27

Parte-hartzaileak		Lekua	Ordua
<ul style="list-style-type: none"> Amurrioko 70 herritar 	<ul style="list-style-type: none"> Josune Irabien (alkatea) Txerra Molinuevo (zinegotzia) Noemi Llorente (teknikaria) Beñat Mendiguren (teknikaria) Ana Izquierdo (teknikaria) 	Katekesiaren ekitaldi-aretoa	18:00 – 19:30

JORRATUTAKO GAIAK

1. Ongietorria eta saioaren antolaketa

Parte-hartzaileei ongietorria egin ondoren, Ana Izquierdo partaidetza-teknikariak AmurriokoEKIN prozesuaren egungo fasea azaldu du, eta Amurrioko herritar talde bat egiten ari delanaren garrantzia azpimarratu du. Talde hori, talde eragilea izenekoa, borondatez ari da egiten prozesuaren jarraipena.

Faseak/ Fases



Errepikatutakoen bateratzea / Unificación de repetidas

- **Guztira jasotako proposamenak: 320**
- **Kanpoan geratutakoak (5) kenduta: 315**
 - Errepikatzen direnak: 125
 - Errepikatzen ez direnak: 190
- **Total de propuestas recibidas: 320**
- **Restando las que quedan fuera (5): 315**
 - Repetidas: 125
 - No repetidas: 190

Errepikatzen diren 125 horiek,
28 proposamenetan bateratuta

Las 125 que se repiten, se
unifican en 28 propuestas

- **Bateratzearen ostean, prozesuan aurrera doazen proposamenak: 218**
- **Tras la unificación, propuestas que siguen adelante en el proceso: 218**

Talde Eragilea / Grupo Motor

- **4 Lan-saio**
- **Emaitzak:**
 - Errepikatzen ziren proposamenen bateratzea gainbegiratu.
 - Udal teknikarien bideragarritasun azterketen onspena.
- **4 Sesiones de trabajo**
- **Resultados:**
 - Supervisión de la unificación de propuestas repetidas.
 - Validación de las valoraciones realizadas por el personal técnico.



2. Prozesua osatzen duten 64 proposamenen aurkezpena.

Proposamenen zerrenda aurkeztu da: prozesu horiek, balioztapen tekniko positiboa edukitzeaz gain, ez dute aurreikusitako aurrekontua gainditu (400.000 euro). 64 proposamen dira guztira, honako gaikako sailkapen honekin.

II. Faseko emaitza / Resultados Fase II (1)

BALORAZIOA	ZBK.	%
Seguir adelante	64	29,36%
No es una inversión	48	22,02%
Valoración técnica desfavorable o inviable	22	10,09%
Supera el presupuesto	20	9,17%
Está hecho o previsto	10	4,59%
No competencia Ayto	24	11,01%
Ganadoras 17-18	5	2,29%
Se recoge en otra propuesta	25	11,47%
TOTAL	218	100,00%

II. Faseko emaitza / Resultados Fase II (2)

Prop. presupuesto >5000	49
Prop. presupuesto <5000	15



3. Proposamenen lehenespena

Parte-hartzaileek 49 proposamenak lehenesteko (5.000 eurokotik gorako proposamenen artean) jarraituko duten metodologia aurkeztu da. Ondoren, azken 15 proposamenak herri-bozketan erabakiko dira.

Beraz, saioaren egitekoa pertsona bakoitzak 3 irizpide aplikatzea izango da, talde eragileak dagoeneko zehaztu dituen irizpideak, hain zuzen ere.

- Proposamena orekatua al da aurrekontuaren eta erabiltzaileei eskaintzen dizkien abantailen artean?
- Proposamenak ba al du eraginik zerbitzu soziokulturalen eta kirol-zerbitzuen hobekuntzan?

- Proposamenaren helburua erdiguneko eta auzoetako bizi-kalitatea orekatzea al da?

III. Fasea / Fase III

Siendo 15 las propuestas con presupuestos < de 5000€ que siguen adelante, el Grupo Motor decidió que todas ellas pasaran directamente a votación popular.



Nola egingo dugu? / ¿Cómo lo haremos?

- Pertsona 1 = Formulario 1
- 49 Proposamen
- Proposamen BAKOITZARI 3 irizpide aplikatu beharra
- 16 urte baino \geq
- Amurrión erroldatuta
- 1 Persona = 1 Formulario
- 49 proposatas
- Aplicamos 3 criterios a CADA propuesta
- ≥ 16 años
- Empadronadas en Amurrio

	SÍ	NO	NO DEL TODO	NO LO SÉ
1. ¿Cómo se valorará el número de beneficiarios de la propuesta?	X			
2. ¿Cómo se valorará el impacto de la propuesta en el entorno sociocultural y deportivo?		X		
3. ¿Cómo se valorará el impacto de la propuesta en la calidad de vida entre el centro y los barrios?		X		
4. ¿Cómo se valorará el impacto de la propuesta en la sostenibilidad económica?				X

Arauk / Reglas

- “X” batekin markatu erantzuna irizpide BAKOITZERAKO
- Formularioa OSORIK bete
- Irizpideak ZENTZUZ aplikatu, azpijokorik gabe.
- EMAITZAK datorren astean
 - Marcar con una “X” la respuesta para CADA criterio
 - Completar TODO el formulario
- Aplicar los criterios de forma SENSATA, sin intenciones fraudulentas
 - RESULTADOS la semana que viene



Galderei erantzuteko honako formula hauek erabiliko dira: “Bai”, “Ez guztiz”, “Ez dakit” eta “Ez”. Erantzun horiek honako puntuazio hau izango dute:

- Bai: Puntu 1
- Ez guztiz / Ez dakit: 0 puntu
- Ez: -1 puntu

Metodologia azaldu ondoren, 49 proposamenak azalduko dira, parte-hartzaileek aipatutako eta azalduko irizpideak aplika ditzaten.

4. Bi irizpideak 49 proposamenei aplikatu ondoren egon diren emaitzak

Parte-hartzaileak Amurrion erroldatuta daudela egiaztatu ondoren, bi irizpideak aplikatu ondoren egon diren emaitzak aurkeztu dira. Proposamenak beheranzko ordenan sailkatu dira: beraz, hasierakoek lortu dute puntuaziorik handiena.

Lehen 15 proposamenak nabarmendu dira, horiek baitira zehaztutako metodologiari jarraituz abenduko herri-bozketan egongo direnak.

PROPOSAMENAK	Puntuak
Etxegoien kalean konponbide integral bat, aparkaleku bat eginez eta kale horretako aparkatzeko bi ilaretatik bat kenduz	139
Amurrioko bidegorri-sarea hobetzea	91
“Ibilbide osasuntsuak” zaindu eta sustatzea	77
Adineko pertsonentzako ariketa-eremuak sortzea Amurrioko hainbat gunetan (Bañuetaibar, Goikolarra, Juan de Aranoa (Alkinar), Larrabe, San José, San Roke, hirigunea)	62
Arkitektura-oztopoak deuseztatzea: 0 kotako estolda eta zuhaitz-txorkoak	47
Refor jatetxeko kirol-eremua hobetzea (saskibaloia-, futbol- eta tenis-zelaiak (ez estali) eta gimnasioa)	41
Mugikortasun urriko pertsonentzako sarbidea hobetzea eta errepideko zuloak konpontzea “Residencias Maracay” eraikinaren inguruan (Landaburu 1, 3 eta 5).	41

0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako ludoteka bat irekitzea hainbat gunerekin (garai bateko Kili Kolon)	40
Adineko pertsonentzako ariketa-eremua sortzea parke handian	36
Emakumeentzako gune/lokala	35
El Salvador eraikinaren etxabeak berrantolatzea talde soziokulturalei eta kirol-taldeei begira	30
Refor-en dagoen gimnasioa egokitu	25
Herrigune guztiko eta Lexarra plaza langa arkitektonikoak kentzea	23
Kultur etxeko goiko pisua garbitzea/berritzea (pintura eta zeramika egiteko erabiltzen dena)	22
24 orduko kamerak jartzea udalerriko toki estrategikoetan, segurtasun-arazoak daudenetan	17
Merkatu Zaharraren eraikina partzialki berritzea, funtzio askotarako gune estalia izan dadin	14
Aldai kalean kokatutako parkinga asfaltatzea eta egokitzea	6
Herriaren erdiguneko aparkaleku kopurua handitzea, epaitegi-inguruan	3
Matias de Landaburu pilotalekua hobetzea	2
Espaloia osatzea Aldaiturriagan	0
Boriñaur plazako eraikinetako espaloietan (11., 12. eta 4. zk.) dauden langa arkitektonikoak kentzea (mailak).	-6
Banku zaharrak irisgarritasun-legea betetzen duten bankuekin ordezkatzeko, edo haiek instalatzea, parkean, pasealekuetan eta ibilbide osasungarrietan.	-6
Banku eta paperontzi gehiago La Casonaren eta kultur etxearen artean eta Etxegoien kalean	-10
José Madinabeitiako espaloia konpontzea, "Pitimini" plazaren parean.	-14
Iparraldeko guneko aparkalekuak	-14
Bañuetako kiroldegiko irteerako norabide bakarreko bi bideetako espaloia urbanizatzea	-17
San Joseko Gaztetxeko segurtasun- eta ebakuazio-baldintzak hobetzea	-18
Iparraldeko atzeko aldea konpontzea	-24
Tenis pistetako zorua berritzea, eta estalkia jartzea.	-26
Goikolarra plaza konpontzea.	-27
Erdian plater bat duten iturriak aldatzea, bereziki haurren guneetan.	-28
Skate pista zabaltzea (skatepark): Pumptrack pista berri bat sortzea	-29
Kiroldegiko sarrerako atea aldatzea. Ate automatikoa jartzea	-35
"Pienso Ramón Pérez"-en pareko oinezkoen pasabidea	-35
Aldaiturriagako oinezkoen pasabidea (Kalifornia plaza)	-37
Arenaldeko Errepidea Konpondu	-37
Aiarako bolatoki bat jartzea Amurrioko erdigunean (Jauregiko Landa plaza)	-43
Paperontziak berritzea, modelo hermetikoago bat bilatuz urez ez betetzeko.	-44
Bide bat egitea ibai bideratuaren gainetik estaziora arte, Yas garajearen atzetik.	-46
Lucas Rey Haur Hezkuntzako ibilgailua	-50
Institutua eta "San Mames Etxea" pisu babestua bereizteko hesia jartzea	-55
Bakarrik garbitzen den komun publikoa San Antonen.	-55
Urrutia Jauregiko Landa plaza egokitzea	-59
Bakarrik garbitzen den komun publikoa San Jose kiroldegia inguruan	-71
Autobusaren egungo geltokiaren kokapena aldatzea, zinemaren eta Berriak supermerkatuaren arteko gunera	-80
Karrozen parkinean kokatutako karabana-parkina egokitzea eta bukatzea.	-81
"Kalifornia plaza" konpontzea	-82
Jende gutxien ibiltzen diren plazak berritzea: Estazioko plaza	-91
Amurrioko parkean jolas-gunea eta freskatzeko ur-txorrota bertikalak instalatzea	-93

Balorazio-fitxetako bi ez ziren kontuan hartu, haien inguruabarrek pentsarazten baitzuten ez zirela lehenesteko irizpideak erabili, baizik eta bozketa bat egin zela, eta hori ez zen saioaren helburua. Alde batetik, "ez"-aren ehunekoa % 83 baino handiagoa zen, patroia bat ikusten da bozketan; hala, baietz bozkatzean, hiru irizpideei bozkatzen zaie baietz, eta, ezetz bozkatzean, hiru irizpideei bozkatzen zaie

ezetz. Azkenik, irizpideak egoki erabiltzen zirela kontrolatzeko erabilitako proposamenetan, emandako erantzunak kontraesanezkoak dira.

1. Esker onak

Parte hartu duten guztiei eskertzen zaie bertaratu izana, eta adierazten da abenduaren 10ean jendaurrean jakinaraziko direla 15 proposamen finalistak, azken herri-bozketara pasatuko direnak.